



STEILAS SINDIKATUAK HAURRESKOLAK PARTZUERGORAKO KUDEAKETA
EREDU BERRIA ALDARRIKATZEN DU: EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA
SAILAREN KUDEAKETA ZUZENA

Hezkuntza Sailaren esku dagoen Haurreskolak Partzuergoko gerentearen erretiroa ate joka dago. Maite Larrañaga Orbea, enpresa publiko honek izan duen gerente bakarra, 2020ko urtarrilean jubilatuko da.

STEILAS sindikatuan kritikoak izan gara beti kudeaketa eredu honekin, eta honen inguruko hausnarketa sakona egiteko momentua dela uste dugu. Gaur egun ia 240 haurreskola gara Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ia 200 udalerritan banatuta. Guztira, 1800 hezitzaile inguru arduratzen gara, ikasturtez ikasturte, 6.000 familia eta haurrei zerbitzua eskaintzeaz. Honen guztiaren kudeaketa ezin da enpresa eredu gerentzial batean oinarritu.

Izan ere, egoera honek prekarietatea eta gardentasun eza ekarri ditu berarekin urte guzti hauean, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketaren ezaugarri nagusi bihurtzera arte. Agortutako eredu bati buruz ari gara, dagoeneko baliagarria ez den eredu bati buruz.

STEILAS sindikatuan Haurreskolak Partzuergo publiko, doako, unibertsal, integral, inklusibo, feminista eta euskalduna aldarrikatzen eta borrokatzen jarraituko dugu.

Honenbestez, Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Sailari eskaera zehatza egiten diegu:

→ Haurreskolak Partzuergo Hezkuntza Sailean guztiz integratzea eta honen kudeaketa zuzena bere gain hartzea, orain arteko kudeaketa eredua gainditzeko.

Erabaki honen ondorioz, Haurreskolak Partzuergo Euskal Hezkuntza Publiko integralaren ezinbesteko zutabe izatera pasatuko litzateke.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus